

Ustelak nagusi direnean

Aurtengo U.E.U.-an hizkuntza zeltikoei buruz eman behar nuen ikasaldia, emankizunen mailan gelditu zait. Baina hura prestatzerakoan lortu nuen dokumentazioa ezagutarazi gabe uztea, penagarria litzateke.

Eta horren barruan sarruko nuke nik, zalantzarik gabe, aurtengo maiatzean Christina Murphy kaseta-riak Irlandako prentsan argitaratu zuten txostena. «The crisis in Irish».

Mila aldiz aipatutako gainbeherakada, legeen beren mailan ere ageri da gero eta lotsagabeago. 1973-az geroztik, esate baterako, gaelikoa ez da beharrezkoa.

«Hizkuntza Askatasuna»ren aldekoek (izen bera erabili ohi dute Bruselas-ko artxi-frantximenen

tek flamenkoen kontra), «derrigor-keria» hori kentzea lortu zuten, «compulsory» hitz famatu hura. «Ez da bortxatu behar, ez da behartu behar», esaten zuten gaelikoaren etsaiek; «behartzea kaltegarria da», zioten. Eta «derrigor-keria» hura erazi zuten legetik. Richard Burke ministroak eman zuen pausua; «gaelikoaren onetan», jakina; eta «borondatekerian» ez erortzeko.

Ingelesaren aldeko berhalaxe ulertu zuen kaxoa: «Now you don't have to know the language!» (Evening Herald, 1973-IV-5). Alegia: «Orain ez duzu hizkuntza jakin beharrik!». Ezta legez ere. Ezta etsamina pasatzeko ere.

Baina Dublin-go politikariak ustelak izanaz gain, axerriak izanik ere, ez

zuten beren mozorroa kolpepezu kendu. Handik aurrera, gaelikoa beharrezkoa izan beharrean, hobetsia bakarrik; eta, azterketei buruz, ikasi beharra izanik ere, ez zen gainditu beharra izango. Ez baina bai, bai baina ez. Hizkera hau ezagutzen duzu?

Dudarik gage, baelikoa-
ren geroa ez da eskoletako
etsaminetan jokatzeko ari.
Irlandan dagoen diglosia
osoan dago kaxoa, noski:
gaelikoak ez du ezertarako
balio.

Baina, kontuz, hau ere ez da guztiz egia. Latinak ezertarako balio ez zuela orain dela 20 edo 40 urte esaterik ez zegoen bezala. Irlandako eskoletan gaur, lehendabiziko eta bigarren mailan, gaelikoa ikasten da.

Hamahiru urte luzez


ikasten dute denek gaelikoa.

Baina, hauxe da zelebrena: hamahiru urtez ikasita ere, etsaminik ez da pasa «behar»... Asignaturarik bitxiena gaur, gaelikoa.

Hala ere, gehienak presentatzen dira gaelikozko etsaminetara. Hona hemen azkeneko zifrak (1979): Intermediate Level = % 95-k pasa dute Leaving Level = % 90,6-k.

Zertarako nahi dute? Hona hemen erantzuna paper hori (alegia, gaelikoa ezagutzekoa) izatea interesgarri izan daitekeelako:

- 1) Unibertsitatean sartzeko (Trinity College-n izan ezik) beharrezkoa da gaelikozko etsamina pasatzea.
 - 2) «Ertzaina» izateko, beharrezkoa da.
 - 3) Lehenengo eta bigarren mailako irakaskuntzan sartzeko, beharrezkoa da (Unibertsitate-irakasle izateko ez da behar, halere).
 - 4) Eire-ko telebistan sartzeko, desiragarria da, baina ez beharrezkoa (Irlandako Telebista ofizialak gaur 4,5 ordu asteen baizik ez du gaelikoz egiten).
 - 5) Funtzionario izateko, ez da beharrezkoa; baina «bonus» bat izaten du.
 - 6) Prentsan sartzeko, abantaila handia da; baina beharrezkoa ez.
 - 7) Sekretaritzan lanpostuetan, gauza bera.
- Baina nota-papera erakutsi ondoren, kito. Eguneroko biziera ingelesez egiten da Irlandan; eta



pilo bat dago, gure abertxaleen artean, euskaraz jakin gabe ere Irlandan ingeleza dotore ikasiak. Baitere aurkakoa ez den Gwinfor Evans galestarrak hori leporatu zien argi-eta-garbi bere azkeneko egonaldian.

«Ireland is really still west Britain»...

Abertzalerik ausartenak argi-eta-garbi mintzo dira honetaz: «Zuk gaur ez duzu gaelikoz jakin beharrik Errepublika-Lehendakaria izateko, ezta parlamentaria izateko ere», esaten du amorruz Donnacha O hEallaighe irakasleak; baina eskolako irakasle izateko, gaelikoaren papera behar duzu. Areago = gaelikozko eskola-liburuak bultzatzeko sortua duen «Comharumann Chois Fharrage» delakoan, 36.000 esterlina zorretan sartu; eta ustelen



gobernuak laguntzarik ematen ez dielako, elkar-tea desegitekotan daude!... maila horretan dago fartsa.

Hori bakarrik ez. Gizarte-helbururik-ez horrek, bere bidea egin du; eta gaelikoaren maila, latinaren modukoa ere, behera doa azkeneko urteotan. Dublin-go gobernuak behala asmatu du soluzioa: etsaminen maila jetxi, eta horrela suspentsoen kopurua ez da aldatu! «Aquí no pasa nada»... Helburua? «To save the faces of politicians», B. Dedan Duffy-ren hitzez esateko = «politikarien aurpegiak salbatzeko».

Belaun berria, horretara, ingelesezko munduan txikitandik erabat murgilduta, nazio-hizkuntzatik at hazi da. Areago = egu-nero 13 urtez eman behar dituen filologi-ordu horien puntza ez du ikusten.

«Gaelikoaren pizkundera —dio Irakasleen Elkar-teak— Irlanda osoaren

eginkizuna da; eta ez gurea bakarrik».

Irakasleen iritzi hori oso ondo azaldu du Elkartek Buruzagia den Gerry Quigley-k — «Leporaino gaude pizkundearen aitzekia eta bitima izateaz». Eta M. McSweeny-k erasten: «Gaelikoa Parlamentuan mintzaturia izatean, elizetan eta kale-biltokietan, negozioen munduan eta administrazioan mintzaturia izatean, eskoletako irakasleek eta irakasleek beste funtsik ikusiko diote beren lanari».

Telebistaren kanpaina gogortzen hasia da horrela; ROSC aldizkaria irakurritz (aurtengo 2.a liburua bereziki) ongi goma daitekeenez.

Hizkuntza batek egiazko mintzabide gisa baliorik ez badu, alferrik dira tituluak, testak eta paperak oro.

